 kutxabank	EZ SEPA TRANSFERENTZIAK	EPIGRAFEA 86
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.15	1. orria 3(e)tik

ORDAINKETA ZERBITZUAK

BALDINTZA OROKORRAK

EZ SEPA TRANSFERENTZIEN AZALPENA

Ez SEPA transferentzia pertsona fisiko edo juridiko batek onuradunari diru-kopuru zehatz bat emateko helburuarekin egiten duen eragiketa da, fondoak entregatzeko edo jasotzeko erabiliko den bidea edozein dela ere, betiere eragiketa Euroa ez den beste moneta batean egiten bada edo transferentziaren agindu-emaileak edo onuradunak SEPA gunekoa ez den herrialde batean entregatzen edo jasotzen baditu fondoak.

LANEGUNAREN DEFINIZIOA (2009ko azaroaren 13ko 16/2009 Legea, ordainketa-zerbitzuei buruzkoa)

Merkataritzako irekiera-eguna, ordainketa-eragiketaren exekuzioan esku hartzen duten agindu-emailearen edo onuradunaren ordainketa-zerbitzuetako hornitzaileen ordainketa-eragiketa exekutatzeko beharrezkoak diren ondorioetarako. Telematikoki kontratatutako ordainketa-kontuen kasuan, kontratatutako ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak egoitza soziala duen hiriari dagokion egutegia izango du.

BEZEROAREN ESKURA DAUDEN ERREKLAMAZIO ETA ERREKURTSO BIDEAK

Transferentzia atzerriarekin izapidetzeagatik bezeroaren eta erakundearen arteko desadostasun edo liskar kasuan, bezeroak erakunde bezeroen arretarako zerbitzura jo beharko du idatziz, Bilboko Kale Nagusia 30. zenbakira. Bi hilabete igarota, bezeroak erreklamazioari eman beharreko ebazpenik jaso ez badu, Espainiako Bankuko Erreklamazio Zerbitzura jo ahal izango du.

KOMISIOEN ETA GASTUEN ONDORIO AUKERAK

Transferentziaren exekuzio-prozesuan esku hartzen duten erakunde ugariak (erakunde jaulkitzailea, onuradunaren erakundea eta erakunde bitartekariak) zerbitzuengatik ordainketa jaso ohi dute. Atzerrira egin beharreko transferentzia agindu duen bezeroak egiteko eskatutako eragiketako komisioak eta gastuak banatzeko modua zehaztu beharko du. Hau da:

- Gastu eta komisio guztien kargu egingo den ("OUR" aukera)
- Partekatu egingo dituen ("SHA" aukera)
- Onuradunari kendu behar ote zaizkion ("BEN" aukera)

Bezero agindu-emaileak ezer zehaztu ezean, erakundeak "SHA" aukerako agindua exekutatu du.

SHA aukera

Erakunde agindu-emaileak aginduaren zenbatekoa osorik transferituko du eta agindu-emaileari likidatuko dizkio aginduaren zenbatekoa eta komisioak eta gastuak. Esku hartzen duten gainerako erakundeek jasotako zenbatekoa, komisioak eta gastuak murriztu ahal izango dituzte, azken onuradunari dagokion zenbateko garbia ordainduta.

Azken batean, agindu-emaileak erakunde agindu-emailearen komisioak eta gastuak ordainduko ditu eta onuradunak, berriz, gainerakoak.


BEN aukera

Agindu-emailearen erakundeak jatorrizko agindutik gastuak eta komisioak kenduko ditu eta azken zenbatekoa helmugara transferituko du.

Esku hartzen duten gainerako erakundeek jasotako zenbatekoari komisioak eta gastuak murriztu ahal izango dizkiote, azken onuradunari dagokion zenbatekoa ordainduta.

OUR aukera

Agindu-emailearen erakundeak aginduaren zenbatekoa osorik transferituko du eta agindu-emaileari likidatuko dizkio aginduaren zenbatekoa, eta prozesu guztiko komisioak eta gastuak. Hortaz, helmugan ez zaizkio gastuak murriztuko onuradunari.

 kutxabank	EZ SEPA TRANSFERENTZIAK	EPIGRAFEA 86
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.15	2. orria 3(e)tik

1. JASOTAKO TRANSFERENTZIAK.

JASOTAKO TRANSFERENTZIA BAT ONARTZEA.

Transferentzia-agindua onartutzat joko da Erakunde agindu-emaileak ondoko datuak jakinarazten dionean Erakunde onuradunari: a) Onuradunaren izena, b) Onuradunaren erakundea eta kontu-zenbakia, c) Fondoaren hornidura, d) Agindu-emailearen identifikazio osoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EB 2015/847 Araudian ezarritako zehaztapenen arabera. Transferentzia onartzen ez bada, datuak okerrak edo urriak direlako, Erakundeak jatorrira itzultzeko eskubidea izango du.

Horrez gain, arrisku-jurisdikzioetatik edo zehapenak dituzten herrialdeetatik datozen transferentzien kasuan, egiaztagiria eskatuko dira, «Nazioartetik jasotako transferentziak» prozeduran ezarritakoaren arabera.

INFORMAZIO OKERRA

Informazioa okerra edo osatu gabea den kasuetan, erakundea transferentzia abonatu ahal izateko beharrezko datuak eskuratzen ahaleginduko da, ahal duen heinean, baina ahalik eta lehenbailehen jatorrira itzultzeko eskumena izango du.


KANBIO TASAK

Jasotakoa ez den beste dibisa batean bezeroari ordaindutako transferentzietan aplikagarriak diren kanbio-tasak hauek izango dira: erakundeak 3.000 euro gainditzen ez dituzten zenbatekoetarako edo kopuru baliokideetarako egunero argitaratutakoak edo erakundearekin finkatutakoak, merkatuko kotizazioari jarriki, hori guztia abonu-datako erosteko kanbioari dagokionez.

ERAGIKETA MOTA	Komisioaren %	Gutxienez oa EUR	Posta
Kontuan likidatutakoak	0,30	9,00	Indarrean diren posta-tarifak

ONURADUNAREN KONTUA IDENTIFIKATZEKO KUDEAKETA

Kontuaren titularrak eta jasotako onuradunaren izena bat ez badatoz, ahalik eta lasterren itzuli ahal izango da eragiketa, edo, bestela, Kutxabankek kontu zuzena identifikatzeko kudeaketa-lanak egin ahal izango ditu. Kontua identifikatzeko kudeaketa-lanak bezeroak eskatuta gauzatu badira, 24,00 euroko kostua izango dute, ezarritako baldintzak aldeztuz aurretik ezagutu eta onartzen baditu betiere.

 kutxabank	EZ SEPA TRANSFERENTZIAK	EPIGRAFEA 86
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.15	3. orria 3(e)tik

2. JAULKITAKO TRANSFERENTZIAK

JAULKITAKO TRANSFERENTZIA BAT ONARTZEA

Erakundeak transferentzia bat onartzeko, bezeroak honako informazioa jakinarazi behar du: a) Agindu-emailearen Bezeroaren Kontu-kodea edo IBAN kodea, b) Onuradunaren izena edo sozietate-izena eta helbidea, c) Onuradunaren erakundearen/sukurtsalaren SWIFT kodea (BIC) edo d) Onuradunaren Banku Kontuaren Nazioarteko Kode (IBAN) osoa eta balioiduna, edo helmugan abonua edo ordainketa egiteko onuradunaren kontu-zenbaki osoa, e) Transferentziaren zenbatekoa eta dibisa eta f) Komisioak eta gastuak jasanarazteko aukera (SHA, BEN edo OUR).

Bezeroak ez baditu datu horiek guztiak jakinarazten, Erakundeak bezeroak eskatu duen transferentzia onartu ala ez erabakitzeko eskubidea izango du.

JAULKITAKO TRANSFERENTZIAREN ONARTZE-DATA

Transferentzia baten onartze-data mota honetako agindu bat betearazteko adostu diren baldintza guztiak betetzen diren eguna da. Honako baldintza hauek, zehazki:

- **Formularioa:** Bezero agindu-emaileak behar bezala betetako transferentzia-eskaera Erakundearen jasotzea, hala berariazko inprimaki bidez nola bide elektronikotik, betiere Erakundeak eskatzen duen informazioa barne hartzen badu, epigrafe honetako 3.1 paragrafoan zehazten den moduan.
- **Finantza-estaldura:** Finantza-estaldura nahikoa izatea.

TRUKE-TASAK

Bezeroari agindutakoa ez den dibisa batean zorduntzen zaizkion transferentziei ondoko truke-tasak aplikatuko zaizkie: Erakundeak 3.000 eurotik beherako zenbatekoetarako edo kopuru baliokideetarako egunero argitaratzen dituenak, edo merkatuko kotizazioa kontuan hartuta Erakundearekin zehaztu direnak. Hori guztia, transferentzia onartzen den egunean indarrean dagoen salmenta-tasaren arabera egingo da.

ERAGIKETA MOTA	Eskuz egindako agindua		SWIFT	Posta
	Komisioaren %	Gutxienekoa €	Finkoa	
SHA edo BEN gastuak	0,50	12,00	9,00 €	Indarrean den postatarifa
OUR gastuak (Komisio gehigarria)	0,10	18,00		
Premiazko transferentziak (Komisio gehigarria) (Ikus 1. oharra)	0,10	3,00		
Transferentzia ezeztatzea, aldatzea, itzultzeko eskatzea edo abonuari buruzko informazioa eskatzea. (Ikus 2. oharra)	20,00 € (bakarra)		-	

- 1. oharra** Bezeroaren argibideei jarraikiz, onartzen diren egunean bertan onuradunari abonatzen zaizkion transferentzia guztiak, betiere dibisen merkatuak horretarako aukera ematen badu.
- 2. oharra** Abonuari buruzko informazio-eskaeraren komisioa Erakundeak transferentzia jaulkitzeko ezarri duen epearen barruan eskatzen denean baino ez da jasoko. Kasu guztietan, korrespontsalen gastuak jasanaraziko dira.
- 3. oharra** Taulan adierazitako komisioak Erakunde honen esku-hartzeari dagozkie, eta gastuak partekatutako direnean edo agindu-emaileak oso-osorik bere gain hartzen dituenean kobratuko dira bakarrik. Gastuak onuradunak bere gain hartzen dituenean, transferentziaren zenbatekotik kenduko dira.